

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko ekainaren 28a / 502. zenbakia


DOMEKAN, SAN MARTZIAL!



UR ZERBITZUA: GIPUZKOAKO KONTSORZIOAREN ESKU/5 • **XABIER LIJÓ:** HIRU HANDIAK, ANTIXINTXIKA/10

BEHERAPENAK

%20 eta %30



Otalora z/g., ARRASATE
943 79 82 68



Irala 5, BERGARA
943 76 27 16



Barrenkalea 35, BERGARA
943 76 29 46

Bonaventure • Pepe Jeans • Diesel • Levi's • Dockers • Zone • Daneva • Sweater House • Positive • Solido • James Dean



KUTXADUN KANAPEA



OHE ARTIKULATUA



ARMAIRUAK NEURRIRA
ERE EGITEN DITUGU

Eskaintza berezia Artekale 6ko **DENDA BERRIAN**

Koltxoia erostean %20rainoko deskontua

Eta koltxoi zaharra geuk jasoko dizugu!



GURIDI
altzari
denda

GURIDI
koltxoi
denda

Artekalea 8, BERGARA
Tel. 943 76 31 02

Artekalea 6, BERGARA
Tel. 943 76 31 02

ATREBENTZIAEZPADA/ San Martzialetan mozkortzia errezago onartzen da?

JOSEFINA IBARGUREN
50 urteMIGUEL ANGEL MURGIONDO
45 urtePABLO ROMÁN
38 urteAMAIA MENDIBIL
14 urteMARISA ESCOBAR
41 urteRUPERTO ETXEBERRIA
72 urte

Gehixago edaten dala uste dot; geure etxeko gaztiekin, behintzat, bai. Tradiziñua be bada, antziñatik dato-rrena. San Martzial egunian mozkortzia errezago onartzen da.

San Martzialetan bai eda-ten dogu gehixago, baiña betidanik; ohitturia da. Dana dala, lehenago gehixago edaten zala uste dot. Oin, lanera jun bihar danez hurrengo egunian...

Uste dot normalian baiño gehixago edaten dogula San Martzialeko erromerian. Ohitturiagaittik-edo izango da, eta beste jai batzuetan baiño hobeto ikusitta dagola pentsatzen jat.

Nik jentia pixka bat *des-madrau* egitten dala ikusten dot; gehixegi edaten dabe. Nik ez dot edaten. Azken baten, San Martzial jaixa da, eta jai gehixen-tan edaten da.

Normalian baino gehixago edaten dala uste dot. Jaixa da, eta jaixetan, normalian, edan egiten dogu. Emoten dau jaixetan ez dala hainbeste neurtzen edatiana.

Nik uste dot danerakua dagola San Martzialetan: batzuek gehixago edaten dabe eta beste batzuek, gutxiago. Eta gaiñera, San Martzial izan edo ez, mozkorra dana beti mozkor.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK SAN JUAN SUA Domeka gauean San Juan Sua antolatuta zuten taldeek ideia ezin hobea eta lan polita egin zuten. Batik bat, ohitura eta usadio zaharrak berreskuratzea zuten helburu. Herritar-rrak ez ziren atzean geratu, eta jende ugari hurbildu zen suaz, musikaz eta dantzez gozatzeko asmoz. Ea datozen urteetan jarraipena duen San Juan Suak. /M.B. /ARGAZKIA: BENITO CANTERO

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 7

KIROLAK / 10

KULTURA / 12

Domekan, San Martzial

San Martzial erro-meria ospatuko dugu domekan. Ohi bezala, hainbat ekitaldi egongo dira.

Urretxun txapeldun

Ander Muguruzak eta Igor Gutiérrez-ze osatutako bikoteak Urretxu-ko Pilota Txapelketa irabazi zuen.

Edurne Azuara aktorea

Jokulariak sariketarako izendatua egon da Azuara. Aurrera begirako asmoez jardun dugu harekin.

ASTEKO DATUA

304

SAN MARTZIALERAKO ALOKATUTAKO MAHAIK

Udalak 304 mahai alokatu ditu San Martzial egunerako. Horiei, norberak jartzen dituenak gehitzen badizkiogu; mahairik gabe zelaian bazkaltzen dutenak ere bai, edota goiz edo arratsalde pasa joaten diren pertsonak batuz gero, zenbat lagun igoko ote da San Martzialera domekan? Kopuruak gora-behera, bergarar askorentzat herriko jai egunik politenatarikoa dela ezin da ukatu, behintzat.

BESTEEKESANA

“ Sasoi hartako momenturik hunkigarriena izan zen 1976. urteko ekainaren 21ean

Bergaran egin genuen ekitaldi politikoa. Euskal Herriko ordezkari-za oso zabala izan zen Bergaran; alderdi politikoak, sindikatuak eta beste hainbat gizarte eragile gerturatu ziren hona eta Bergarako Udalak hartutako erabakiarekin bat egin zuen herriak. Ikurriñaren aldeko borroka aurrera eramateko sekulako gogoia zuen herriak”.

JOSE LUIS ELKORO
GOITB/02-06-26

BERAIEKDIÑO / Jose Angel Mikeo



Sormena eta kultura

Gasteizen bizi naiz azken urte eta erdian eta, egia esan, ez naiz arrotz sentitzen. Auzoan 2.000 magrebi eta beltz bizi dira, azken urte honetan beltzak izugarri auzoratu, gasteizeratu, dira. San Bizente eliza eta Mezquita etxetik distantzia berdineratitut. Eta gure atariko bizitzetan ia denok hizkuntzaz euskaldunak izan arren, kalean arabea gehiago aditzen dut euskara baino.

Jatetxe pakistania, denda arabea, hurrengo kalean daude. Araba Euskarazan postu gehienak Otabaloko artisauek jarriak ziren... aldaketa handi bat bizitzen dihardugu eta ez gara zeharo jabetu gure jarrerez eta egoerak eskaintzen dituen baliabide kultural izugarriez.

Euskal Herriak beti jakin izan du bestearen kulturatik baliagarri ziren gauzak hartu eta euskalduntzen. Zeharo euskalduntzat ditugun hainbat gauza, duela 200 urte arrotz ziren. Prozesu hauek poliki

egin dira askotan, baina oraingoan bizkor eta indartsu gertatzen ari da. Era kontzientean jokatu gertatzen ari dena ulertu eta gure euskaldun izaera indartuko duen aniztasun kulturala martxan jarri beharra daukagu.

Sormena eta kultura dira, duda barik, baliabide berriztagarriak diren neurrian, kultura aunitzeko gizartea eraikitzeko oinarriak. Sormenak ekimena mugiarazten du eta kulturak, aldiz, garapenaren alde dabilzan ekintzaileen parte-hartze prozesu demokratikoak. Edozein izen emanda ere: globalizazioa, garapen eusgarria, tokian tokiko garapena... sormena eta kultura izango dira, justizia eta berdintasunean onarriturik, gizakiaren ahalmenak aprobetxatzen bultzatuko duten beharrezko osagarriak. Bakoitzaren izaera errespetatuz, aniztasuna kontutan hartuz, bestearenakin eta nerearekin elkar aberastuz gerazina den prozesu nazionala indartuko da.

“Sormena eta kultura dira, duda barik, kultura anitzeko gizartea eraikitzeko oinarriak”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu MendibilERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane IrizarMAKETAZIOA
Inaki IturbePUBLIZITATEA
Mireia LarrañagaKOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
ElkorobereizbarLEGE-GORDAILUA
SS-50/91ISSN
1130-6599TIRADA
5.900 aleGoiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Eusko Jaurlaritzako
Kultura sailaGipuzkoako
Foru AldundiaBergarako
UdalaAntzuolako
UdalaElgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 28**
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74
- ZAPATUA, 29**
PUY, Barrenkalea 25 943 76 19 63
- DOMEKA, 30**
PUY, Barrenkalea 25 943 76 19 63
- ASTELEHENA, 1**
GUALLAR, San Antonio 5 943 76 11 05
- MARTITZENA, 2**
ESTELLA, Matxiategi 5 943 76 19 63
- EGUAZTENA, 3**
MOZOS, San Pedro 4 943 76 12 15
- EGUENA, 4**
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emalleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06
- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50
- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kiroldegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuaren etxea, Bergara 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuaren elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- Santa Marina** Domekak: 10:30.
Domekak: Labegarieta
11:30, 13:00. Domekak: 11:00.
Zapatuak: 19:00. San Lorentzo
Lanegunak: 19:15. Zapatuak:
20:00.
- San Pedro** Domekak: Angiozar
09:30, 12:30. Domekak:
Zapatuak eta 11:30.
lanegunak: 19:00. Moja
Sierbak Zaharrak
Lanegunak: 19:30. Lanegunak: 8:00.
- Osintxu** Domekak: 12:30. Mizpirualde
Zapatuak: 19:00. Zapatuak: 17:30.
- Elosu** Domekak: 10:30. Antzuola
Domekak:
Ubera 09:00, 11:30. Zapatuak eta
Domekak: lanegunak: 19:30.
10:30. Uzarraga
San Juan Domekak: 11:00. Domekak: 10:00.
- Elorregi**
- URTE-MEZAK**
- Santa Marina** Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro** Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

AIZEPEREN BATZARRA ZAPATUAN
Aizepe elkarteak Batzar Orokorra egingo du bihar, zapatua. Lehen deialdia 17:30ean izango da eta bigarrena, 18:00etan. Batzarrean parte hartzeko dei egin diete bazkideei.

KIROLDEGIA ITXITA DOMEKAN, SAN MARTZIAL EGUNEAN
Udal Kirol Zerbitzuak jakinarazi duenez, Labegarietako kiroldegia itxita egongo da etzi, domeka.

'BIXKAI'-REN ONGIETORRI AFARIA
Iñaki Arietaleanizbeaskoa *Bixkai*-ren omenezko ongietorri afaria izango da uztailaren 6an (zapatua) San Martin plazan, 21:00etan. Txartelak Arrano, Kortazar edo Pol-Pol tabernetan eskura daitezke. Langabeendako prezioa 10 euro izango da eta langileek, berriz, 15 euro ordaindu beharko dituzte.

DELICATESSEN TALDEAREN EMANALDIA
Udako gauak egitarauaren barruan, Delicatessen jazz taldearen emanaldia izango da uztailaren 5ean (egubakoitza) Espoloian, 22:30ean. Jesus Álvarez saxo jotzaile bergararrak *Delicatessen* taldean dihardu.

JARDUNENAGENDA

KARTZELA ZAHARRA, IRAILERA ARTE ITXITA
Joan den aste bukaeran amaitu zen Jardun elkarteak 8 eta 11 urte bitarteko gaztetxoei ikasturtean barrena eskainitako aisialdi kanpaina. Hortaz, udako oporren ostean, irailaren bukaeran, zabalduko dute Kartzela Zaharra berriro ere jardueratarako.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluez aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarretetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN


Justo Garate ikerketa beka aurkeztu zuen Udalak

Bergarako Udalak Justo Garate Arriola jakintsu bergararraren omenezko ikerketa beka aurkeztu zuen 1992ko udan. Sasoi hartan, Argentinako Mendoza hirian bizi zen medikua omendu nahirik sortutako beka zen eta soziologia, historia eta filologia-ko gaiet zuzenduta zegoen.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Tripazilla"



Zilborrari deitzen zaio *tripazilla*.

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Astelehena, 24	14 °C
MAXIMOA Egubakoitza, 21	28 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	9,8 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 19	22 °C	17 °C	1,6 l/m²
Eguena, 20	18 °C	14 °C	- l/m²
Egubakoitza, 21	28 °C	15 °C	- l/m²
Zapatua, 22	28 °C	14 °C	0,6 l/m²
Domeka, 23	19 °C	16 °C	4,1 l/m²
Astelehena, 24	16 °C	14 °C	3,5 l/m²
Martitzena, 25	24 °C	14 °C	-

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKOFILMAK

'EL ATAQUE DE LOS CLONES'

ZUZENDARIA: GEORGE LUCAS. AKTORE-
AK: NATALIE PORTMAN, EWAN MC GREGOR.

HARIA. *Skywalker* eta *Obi-Wan Kenobi jediek Amidala* babestuko dute, eta *Skywalker Amidala*-rekin maiteminduko da...

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



OGIZUN
koop. elk.
okindegia



San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean
erreforma
Pintura zerbitzu osoa
Moketak
943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59
Bergara

UR ZERBITZUA/ Abuztutik aurrera, Partzuergoak kudeatuko ditu abonatuak; Masterrekan Arreta Bulegoa jarriko du

Udalak ur zerbitzua Gipuzkoako Kontsorziara pasatzea erabaki du

MONIKA BELASTEGI

Beheko sareko ur horniketa eta saneamendu zerbitzua Gipuzkoako Ur Kontsorziaren bidez ematea erabaki du Udalak. Astelehenean onartu zuten Kontsorziarekin sinatuko duten hitzarmena. Abuztutik aurrera egingo da zerbitzuaren kargu Kontsorziara.

EAJ-EA eta PSE-EE alderdien oniritziarekin erabaki du Udalak ur zerbitzua Kontsorziaren bidez ematea. Batasuna taldeak, bestalde, ez zuen gaia bozkatu. Egunezko gai zerrendarekin hasi aurretik, Alderdien Legea dela eta plantoa egingo zutela adierazi zuten. Hala ere, aretoa utzi aurretik eskatu zuten ur zerbitzuaren gaia mahai gainean uztea, ez dutelako aukerarik izan gaia gainean euren iritzia emateko. Bestalde, planto instituzionalagatik, ez zuten azalpen gehiagorik eman, nahiz eta datorren astean prentsaurrekoan euren iritzia berri emango duten.

Udalak, hortaz, beheko sareko ur horniketaren eta saneamenduaren zerbitzu publikoa Gipuzkoako Ur Kontsorziaren bidez ematea erabaki du. Kontsorziok, berriz, zerbitzua modu zuzenean kudeatuko du, Gipuzkoako Urak SAREN bidez. Horrek esan nahi du Gipuzkoako Ur Kontsorziara arduratuko dela harpidedunak kudeatu eta hornidura eta saneamendu sareak zaindu eta ustiatzeaz.

KONTSORZIOA JO BEHARKO DUGU


Aurrerantzean, hortaz, urarekin zerikusia duten kontu guztiak -altak, bajak, izen aldaketak, matxura arazoak...- Kontsorziarekin egin beharko ditugu, orain artean Udalarekin egin izan dugun moduan. Hori horrela izateko, bulego bat irekiko du Kontsorziok Masterreka kalean.

Horixe izango da herritarrrongan izango duen eragin nabarmenena. Urarengatik ordaintzen dugun tasari dagokionez, Udala da kopurua erabakitzen duena, eta aurrerantzean ere halaxe izango da.

Bi aldeek sinatuko duten hitzarmenak dio uztailaren leian hasiko dela Kontsorziara zerbitzua eskaintzen, baina posible da epea atzeratzea. Bulegoa, behintzat, abuztuan irekiko dute.

KONTSORZIOAK EGINGO DITUENAK

Abonatuaren kudeaketari dagokionez, honako lanak egingo ditu Gipuzkoako Ur Kontsorziok: batetik, fakturak prestatzea eta kobratzea. Fakturatan, ur hornidurako eta saneamenduko tasez gain, zaborrak bildu eta ezabatzeko zerbitzuaren tasa jasoko da. Bestalde, Kontsorziara bera



ARTXIBOA

Masterreka 14-16 zenbakian jarriko du Kontsorziok bezeroendako arreta zerbitzua.

Uraren gaineko kontu guztiak Gipuzkoako Ur Kontsorziok tramitatuko ditu

Bezeroendako Arreta Bulegoa jarriko dute herrian; baina 24 orduko telefono zerbitzua ere

arduratuko da ordainagiriak kobratzeaz, bai borondatezko aldian baita exekuzio aldian ere. Bestetik, kontagailuez ere arduratuko da Kontsorziara. Hirugarrenik, hornidura kontratatzeaz ere Kontsorziara arduratuko da. Bere kargu izango dira, baita ere, iruzurgileak aurkitzea eta jendaurreko lanak.

Horrez guztiaz gainera, saneamendu sareak zaindu eta kontpontzea ere Kontsorziaren lana izango da.

UR ZERBITZUKO LANGILEAK

Ur zerbitzua Udaletik Kontsorziara pasatzeak zeresan ugari sortu zuen iaz Udaleko langileen komitearen aldetik. Euren kezka zen orain arte Udal langile izan diren hiru lagun baldintzak zertan geratuko diren aldaketarekin. Hitzarmenaren arabera, langileek Udaleko izaten jarraituko dute, eta haien lan-baldintzak gainerako Udal langileenak izango dira, nahiz eta Kontsorziok emandako jarraibideak bete

beharko dituzten lanean. Ordu-tegi eta egutegiari dagokionez, EUFALEBAK jarritakoa izango da, eta urtero Brigadako gainerakoei ezartzen zaie egutegi berdina aplikatuko zaie. Horrez gain, lan-esparrua Antzuola, Elgeta, Soralue eta Bergara izango da, eta guardiarik egingo ez dutela ere jasotzen du hitzarmenak.

BATASUNAREN PLANTOA

Batasuneko hautetsi guztiak bezala, Bergarakoek ere domekara arte plantoa egingo dutela azaldu zuten osoko bilkuraren hasieran; hau da, ez dute lan instituzionalik egingo. Astean bozkatzekoa zen Alderdien Legea da arrazoia. Batasuneko kideen esanetan, legeak baldintzatu egiten du euren parte hartzea Udalean, nola gauzatuko den ez jakin arren. Euren hitza kolokan dagoela gehitu zuten, eta, euren bezala, ia 3.500 herritarrena.

JOXEMI TELLERIA /GIPUZKOAKO UR KONTSORZIOKO GESTIO ZUZENDARIA

"Urarekin lotutako guztia tramitatuko dugu"

Non eta noiz irekiko duzue bezeroen arretarako bulegoa?

Okerrrik gertatzen ez bada, Masterreka 14-16an, baxu baten, jarriko dugu. Abuztu aldera ipiniko dugu martxan, oraindik ez dago egun zehatzik. Astelehenean egubakoitzera egongo da zabalik, 09:00etatik 13:00etara. Dena dela, gure asmoa da abonatu guzti gutun bat bidaltzea, azaltzeko zerbitzuaren aldaketa izan dela, bulegoa non eta noiz irekiko den, eta nola funtzionatuko duen. Gutunean, bezero bakoitzak zein tarifa duen, non helbideratua duen... agertuko da, okerrrik balego, zuzentzeko.

Zein da bulegoaren funtzioa?

Ur zerbitzuarekin harremana duen edozein tramitazio egin ahal izatea abonatuak. Hau da, altak, bajak, titularren aldaketak, domiziliazio aldaketak, matxurak jakinaraztea... Urarekin harremana duen edozein arazoren tramitazioa. **Bulegoaz gain, 24 orduko telefono zerbitzua ere izango da.**

Bai, 902 30 22 22 telefonoa. Kontsorziaren barruan udal guztiendako telefonoa da. Bulegoak eskaintzen duen zerbitzu bera eskaintzen du telefonoak. Edozein arrazoiengatik bulegora hurbildu ezin direnendako pentsatuta dago.

LABUR

Herriz herri AHTrik ez! martxa helduko da astelehenean

Astelehenean, uztailaren leian, iritsiko da AHT Gelditu! Elkarlanak antolatutako martxa Bergarara.

Arrasatetik datorrenez, Labegarietatik sartuko da herrira, 19:00etan, hain justu ere. Ordu horretarako egin dute lehen deialdia antolatzailerik eta animatzen diren guztiak bizikletarekin hurbil daitezke bertara, bizikleta gainean hurbilduko dira-eta Espolaira. Han oinezkoendako deialdia egin dute, 19:15 aldera, Munibe plazara abiatzeko asmoz.

Munibe plazan Jesus Mari Garitanok eta Iñaki Antigüedek trenak eragingo dituen kalteen gainean jardungo dute, 19:30ean; trikitalariak eta bertsolariak ere egongo dira. Bestalde, gai berberarekin lotuta, kontzertua egongo da gaur, egubakoitza, 22:30ean, gaztetxean, Folkore eta Anasua Band taldeekin.

Euskal Unibertsitatearen aldeko sinadurak

Euskal Unibertsitatearen aldeko sinadura bilketa izango da San Martzialen domekan, 09:00etatik 14:00etara. Euskal Herriak unibertsitate propioa izateko eskubidea eta beharra daukalako oinarria gainean, Euskal Herriko hainbat talde hori betetzeko proiektua garatzen ari da.

Bergarako hainbat lagunek ekimen horren aldeko sinadura bilketa egingo dute San Martzialen. Kanpaina Euskal Herri osoan egingo dute eta helburua 55.555 sinadura batzea da. Sinadurekin batera, euro bateko laguntza ere eskatuko dute kanpainaren gastuei aurre egiteko. Bestalde, sinatzaileen helbidea ere eskatuko dute, proiektuak aurrera egin ahal harremantetan egin ahal izateko.

Astelehenean, udako ordutegia hasiko du Udal Liburutegiak

Astelehenean aurrera udako ordutegia hasiko du Udal Liburutegiak. Astelehenean egubakoitzera egongo da zabalik, 08:00etatik 13:30era; eta astelehenean eta eguenean, arratsalde ere bai, 16:00etatik 20:00etara. Zapatuetan, berriz, itxita egongo da.

Abuztuari dagokionez, goizez bakarrik egongo da zabalik, 08:00etatik 13:30era. Eta abuztuaren 12tik 18ra bitartean itxita egongo da.



Paul Zubillaga egoitzari izena eman dion medikua eta Roman Sodupe Gipuzkoako diputatu nagusia inaugurazio ekitaldian.

MONIKA BELASTEGI

GIZARTEA/ Uliazpi fundazioak jarri du eta astelehenean inauguratu zuten

Adimen-urritasun larria tratatzeko egoitza ireki dute

MONIKA BELASTEGI

Uliazpi Fundazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiari atxikitako fundazioak, adimen-urritasun larria duten pertsonen beharrei erantzuteko egoitza ireki du Toki Eder plazan. Debagoieneko biztanleei zuzenduta dago eta Paul Zubillaga pediatarren izena darama.

Astelehenean inauguratu zuen Uliazpi Fundazioak Toki Eder plazan jarri duen zentroa. Adimen-larritasun larria duten gaixoei dago zuzendua egoitza; Debagoieneko gaixoei, hain justu. Dena dela, onuradun izateko 18 urtetik gorakoa izan beharko da; eta lehenetsuna emango diete gaur egunean bestelako zerbitzurik jasotzen ez duten gaixoei. Baita beste herriren bateko egoitzaren batean egonda ere, etxetik hurbilago egon nahi duten Debagoieneko gaixoei ere.

Bestalde, egoitza herrigunetik

gertu egoteak ere badu bere arrazoia: zerbitzua jasoko duten pertsonen autonomia, parte hartzea eta komunitatean sartzeko aukera bultzatzea, hain zuzen ere.

Egoitzak bi zerbitzu eskainiko ditu: batetik, bizileku zerbitzua, eta, bestetik, Eguneko Zentro zerbitzua.

Zerbitzuetako bakoitza solairu batean dago: lehenengoan, Eguneko Zentroa. Hogei lagunendako tokia du eta dagoeneko martxan dago, 10:00etatik 17:00etara, hain justu ere. Bigarrenean, berriz, Bizileku Zerbitzua dago.

Bi zerbitzu eskainiko ditu: Bizileku Zerbitzua eta Eguneko Zentro zerbitzua

tzua dago, hamar lagunendako tokiarekin. Azken hori oraindik ez dago martxan, bigarren solairuaren egokitzapen lanak ez dituzte eta amaitu. Bestalde, eraikina erosi eta zentro bihurtzeko lanek 1.021.720 euroko aurrekontua izan dute.

PAUL ZUBILLAGA EGOITZA

Inaugurazio ekitaldian izan ziren Roman Sodupe Gipuzkoako diputatu nagusia, Maximo Goikoeitxea Gizartekintzako diputatua, Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea, Arantxa Agiriano Uliazpi Fundazioko gerentea eta Paul Zubillaga, egoitza berriari izena eman dion pediatria.

Paul Zubillaga ezaguna dugu Bergaran. Hemen ekin zion pediatria lanari eta Bergaran izan zen hainbat urtez. Egoitzari bere izena jartzean, Zubillaga omendu nahi izan dute, adimen-urritasunaren eta adimen-urritasun larriaren arloan egin duen lanagatik.




Iñaki Arietaleanizbeaskoa aske utzi dute

Iñaki Arietaleanizbeaskoa *Bixkai* aske utzi zuten joan den egubakoitzean, bederatzi urte espetxean egin ondoren. Ongietorria egubakoitzean bertan egin zioten. Lehenik eta behin, haren auzoan, Altos Hornosen, eta gero, San Martin plazan. Horrez gain, ongietorri afaria ere egingo diote uztailearen 6an San Martin plazan. Txartelak Arranon eta Pol-Polen daude salgai.



Udal Euskaltegia 20. urteurrena ospatzen

Urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte ikasturtean barrena; azkena, joan den egubakoitzean. Irakasle eta ikasle ohiak eta gaur egungoak elkartu eta afaria izan zuten Zabalotegiko pilotalekuan. Udaleko ordezkariak ere gonbidatu zituzten. Guztira, 80 lagun inguru elkartu ziren. Irailetik abendura bitartean, zehaztu gabeko ekitaldi gehiago izango dira.



Herran

ELEKTRIKAKO TRESNAK

Soinua, telebista, hozgailuak...

Matxiategi, 3

943 76 12 22

SUKALDEKO ALTZARIAK

Vegasa banatzaile ofiziala

Matxiategi, 4

943 76 37 53

vegasa



JAIAK/ Domekan, San Martzial eta bihar, zapatua, San Pedro eguna da; hori ospatzeko ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte arratsaldean eta iluntzean

Aurten, bat egingo dute San Martzialgo letaniak eta erromeriak domekan

MONIKA BELASTEGI

Etzi, domeka, San Martzial eguna izango da; egun polita bergararrondako. Ohiturari jarraituz, San Martzialgo zelaietan herritar ugari batuko dira goizean hasi eta gauera arte. Meza, dantzaldiak, jokoak eta koadrila giroa izango dira nagusi San Martzial egunean.


Goizean goizetik hasiko dira San Martzial eguneko ekitaldiak. 07:30ean, Santa Marina parrokiatik San Martzialerako igoera egingo dute letania errezatuz, eta San Martzialgo basilizara heldu ondoren, meza egongo da. Meza bukatu eta gero, San Joxepe erretiratuen elkarteko kideek txokolatea banatuko dute hurbiltzen diren guztien artean.

San Martzialera igotzeko bigarren hitzordu bat ere izango da. 09:30ean, alborada egongo da Lizarrako dultzaineroekin, Zumarragako trikitilariekin, Los Incansables txarangarekin eta Udal Txistulari Bandarekin. Horren ondoren, 10:00etan, izango da San Martzialerako bigarren igoera; burdi igoera, hain justu ere; eta 11:00etan, Meza Nagusia egongo da San Martzialgo ermitan. Meza bukatu eta 12:15ean, Xamatx dantza taldeak emanaldia egingo du, eta gero, ohiko Aurrekua izango da.

Dantza saioa amaitzen denean, bertsolarien txanda iritsiko da: Narbaiza eta Egileor bertsolariak saioa eskainiko dute. Bertso saioa amaitzen denean, nahi duten guztiek kantu herrikoiak abesteko aukera izango dute kantinen aurrean.

Horrekin, goizeko ekitaldiak amaituko dira, bazkal orduari bidea egiteko. Aurten, 304 mahai alokatu ditu Udalak bazkarirako, eta horri norberak jarritakoak gehitzen badizkiogu, domekan, San Martzial mahaiez josita egoitea ez da harritzekoa izango.

Arratsaldean, umeendako jokoak egongo dira 16:00etatik aurrera, eta 18:00etan, helduendako herri jolasak hasiko dira.



ARTXIBOA

Xamatx dantza taldeak emanaldia egingo du 12:15ean, eta gero, ohiko Aurrekua izango da.

Letania 07:30ean hasiko da Santa Marinan, eta gero, meza egongo da San Martzialen

Sokatiran eta txingetan aritzeko aukera ere egongo da. Sokatiran zortzi laguneko taldeak beharko dira. Tiratzaileek, gutxienez, 16 urte izan beharko dituzte eta, gehienez, zortzi talde egongo dira gizonezkoetan eta beste zortzi emakumezkoetan. Izenematea egunean bertan izango da, 17:00etan. Txingak gizonezkoendako 50 kilokoak izango dira eta emakumezkoendako, 25 kilokoak.

Sokatiran eta txingak jokoan aritzeko, egunean bertan eman beharko da izena, 17:00etan

Nagusiendako jolasekin batera, erromeria hasiko da, Kuluksa taldearekin. Eta 21:00etan, jaitsiera iragartzeko suziriak botako dituzte: txistulariek, dultzaineroek, trikitilariak eta txarangak alaituko dute jaitsiera.

UDALAREN OHARRAK




San Martzialera igoera Santa Marinatik izango da ohiko moduan, baina jaitsi, Kilometro-

Gaztainondoak zaindu eta mahaiak jartzeko terrazarik ez egiteko eskatu du Udalak

ak jairako prestatutako ibilbide-tik egin beharko da. Goizetan ibilbide osoa egongo da irekita ibilgailuendako, baina 15:00etatik aurrera moztu egingo dute Santa Marinako igoera. Orduetik aurrera urbanoa ibiliko da. Horrez gain, ingurumenarekin errespetuz jokatzeko ere eskatzen du Udalak, landatutako ehun gaztainondoak zainduz eta mahaiak jartzeko terrazarik eraiki gabe.

EKAINAK 29, SAN PEDRO EGUNA

Domekan San Martzial izango den bitartean, bihar, zapatua, San Pedro eguna izango dugu. Hori ospatzeko, hainbat ekitaldi egongo dira: 17:00etan, bonba japoniarrak egongo dira San Martin plazan, eta 18:00etan, buruhandien eta erraldoien kalejira, Kobok dultzaineroen laguntzarekin. Honako ibilbidea egingo dute: San Martin plaza, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea, Arruriaga, Masterreka, Bideberri, Irizar pasealekua, Barrenkalea eta San Martin plaza; 19:00etan, meza nagusia izango da. San Pedro eguneko ekitaldiekin amaitzeko, Natalio Maiztegi eta haren taldeak dantza ikuskizuna eskainiko dute; baita animatzen diren guztiei dantzarako pausok erakutsi ere.


-  Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
-  Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
-  Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

Telefona: 943 76 16 63. BERGARA



ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A



MAGNOLIO HANDIARI AIPAMEN BEREZIA

Ikerketa baten arabera, penintsulako arbolarik esanguratsuenetako bat Olaso dorreko parkeko magnolioa dugu. Ehunka urte ditu magnolioak, baina sasoiko dago oraindik. Ia, bada, horrela jarraitzen duen!



1958AN JAIOTAKOEN AFARIA

Kinto afaria egin zuten joan den ekainaren 15ean (zapatua), 1958. urtean jaiotakoek, aurtun, 44 urte beteko dituztenek, hain justu. Urtero-urtero egiten dute afaria, ez dute hutsik egiten. Aurtengoan, guztira, hogeita hamahiru lagun elkartu ziren, eta ondo majo ibili ziren.



ARANZADIK 30 URTE

Aranzadi ikastolak 30 urte bete ditu. Hori ospatzeko eta ikasturteari amaiera emateko, musikaz betetako jaialdia egin zuten frontoian joan den egubakoitzean. Ekitaldi horretan, gainera, Imanol Urbieta pedagogo eta konposatzaile zarautzarra omendu zuten, ikastoletan egin duen lanarengatik. Zozketa ere egin zuten Aranzadikoek; 7.490 zenbakidun txartela duenak landa etxe baten asteburua pasatzeko aukera izango du. Bide batez, ikastolako Gurasoen Kontseiluak jaialdian parte hartu duten ikasle, irakasle eta gurasoei eskerrak eman nahi dizkie.

LIKIDAZIO OSOA BERRITZE LANENGATIK

Trajeak	216 €tik 36.000 pezetatik	108 €ra 18.000 pezetara
Soinekoak	120 €tik 20.000 pezetatik	60 €ra 10.000 pezetara
Prakak	72 €tik 12.000 pta.	36 €ra 6.000 pezetara


MARGA jantzidenda
San Pedro 20. Bergara. Tel. 943 76 05 37

FRONTOI



TABERNA


Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09



Rene Waterhouse

Irailean
2002-03
ikasturtea hasiko dugu
Eman izena!

**Ingelesko
ESKOLA
TRINKOAK
uztailean
943 76 59 08**



Ur-bide
ITURGIN TZA

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617

BERGARAN
BULEGO BERRIA



INMOBILIARIA

BERGARA
Ibargarai 3.
943 76 97 97

LEGAZPI
Santikutz 8.
943 73 05 25

**10 URTEKO
ESPERIENTZIA!**

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

BERGARARRAK MUNDUAN

MIRARI STANFORD

49 URTE / ARTISAU / SYDNEY (AUSTRALIA)

“Hemengo hondartzak eta basoak oso ederrak dira, zoragarriak benetan”

AINTZANE IRIZAR

Hogeita zazpi urte daramatza Mirarik Bergararik kanpora bizi izaten. 1974an, Londresera joan zen; hantxe bizi izan zen denboraldi batez, eta 1978. urtea bitartean Europako hainbat tokitan bizi izan zen. “Europar zehar bidaiatu nuen eta Danimarkan ere bizi izan nintzen; gero, Iranera joan nintzen eta han ere bidaiatu egin nuen”, gogoratzen du. Euskal Herrira ere itzuli zen, baina denbora laburra egin zuen hemen, sei bat hilabete. Hemendik Marbellara joan zen, eta handik, azkenean, Australiara, Mark senarrarekin eta Jason semearekin.

Australian, berriz, hogeita urte daramatza bizi izaten. Sydneyn bizi da gaur egun. “Marbellan bizi ginela, Australian oporretan izandako lagun batzuekin elkartu ginen;



hango argazkiak erakutsi zizkiguten, gustatu egin zitzaigun eta Australia ikustera etortzea erabaki genuen. Eta hementxe geratu ginen”, azaldu digu Mirarik.

Artisau egiten du lan Mirarik, urrezko dekoratuak egiten. Euren negozioa daukate,

“Londresen bizi izan nintzen, eta gero Europan zehar bidaiatu luzea egin nuen”

eta oso gustura ei dago. Bestelako lanetan ere ibilia da. Esaterako, sukaldaritzako ikasketak egin zituen, eta praktikak egitera Bergarako Lasa jatetxera etorri zen.

Australiara joan zenean, hango hondartza garbiekin harrিতuta geratu ei zen: “Oso ederrak iruditu zitzaizkidan hemengo hondartzak, garbi-garbiak; bestalde, hemengo basoak eta hiri barruko berdeguneak ere zoragarriak dira”, adierazi digu Mirarik.

Familiaren ohiturei jarraituz-edo, Mirariren semea, Jason, Madrilen bizi da gaur egun; gaztelania ikastera joan da Madrilerara.

Urte asko daramatzen arren kanpoan bizi izaten, ez ditu jaioterriarekin loturak apurtu; abuztu amaieran, esate baterako, herrian izango dugu bisitan.

MINGAINARITIRAKA



Ana González de Galdeano

CRISTINA JANTZI DENDAKUA

Anak 48 urte dauzka, eta urretxurra dan arren, hogeita hiru urte daroia Bergaran bizi izaten. Oin dala hiruzpau hilabete ezker, Cristina jantzi dendia dauka.

Zure lanian ze da gehixen gustatzen jatzuna?

Neretako erronka izan da dendia jartzia. Egunerokotasunetik urten dot lan horrekin, nobedadia da neretako, eta horixe da lanaren alde onena.

Eta gutxien?

Ez dago gustatzen ez jaten ezer be.

Zertan lan egingo zinuake gustora?

Idazkari ibilli nintzan lanian, eta hori beti gustatu izan jat.

Modia jarraituko dozu, ezta?

Bai, gustatzen jat modia jarraitzia, baiña nahiko apala naiz.

Ze eruango da aurtengo udan?

Batez be, kolore gorrixa; baita urdiña eta txurixa be. Goitik behera beltzez edo txuriz jantzia be modan dago.

Jaso dozun azken oparixa?

Lauburu bat; lorak be askotan oparitzen doste, asko gustatzen jat-eta.

Eta zeuk egin dozun azkena?

Argazki-kamara bat.

Ze zaletasun daukazu?

Asko: mendian ibiltzia, irakurtzia, zaldixan ibiltzia... Denpora libria ondo aprobetxatzen ahalegintzen naiz.

Ze liburu mota gustatzen jatzu?

Nobela historikua.

Mendi bat?

Urbiara jutia gustatzen jat.

Zela definiduko zinuake zeure burua?

Uste dot nahiko pertsona ona naizela, neure buruakin konsekuentea naiz.

Beti egin nahi izan dozun zezer, baiña oraindik lortu ez dozuna?

Ez daukat aparteko desiorik; eguneroko gauza txikixekin disfrutatzen dot.

AINTZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA / Itsaso Aginagalde

COSTA RICA / 1999ko ekaina

Gure kabuz egin genuen bidaiatu, lehenengo gaua pasatzeko bakarrik hartu genuen hotela alde zurretik. Gainera, bagenuen lagun bat, Marije Zabaleta, Costa Rican bizi izandakoa; hango nondik norakoak azaldu zizkigun Marijek.

Lehenengo egunean, San Jose, hiriburura, iritsi ginen. Han gau bat pasatu genuen. Lur orotako ibilgailu bat errentan hartu genuen han, eta barruko aldea bisitatzera abiatu ginen. Izugarria da zelako bide txarrak dauden Costa Rican, herrialde osoan. Distantzia laburrak egiteko ordu mordo behar izaten genuen.

Volcán Arenal ingurura joan ginen. Inguru hartan badao jardunean dagoen sumendi bat, baina lainoagatik ezin izan genuen ezer ikusi. Handik Rincón de la Vieja joan ginon; han beste sumendi bat ikusi genuen. Mendialdean dago inguru hura, eta bi hotel berterik ez zegoen, biak ere arrantxo estilokoak, ganadu eta guzti. Zaldian irteerak ere egin genituen; ikusgarriak ziren inguru hartako oihanak, hango zuhaitzak eta landareak.

Handik kostaldera joan ginen; ilusioz joan ginen, sekulako tokiak ikusiko genituelakoan, baina egia esatearren, ez genuen aparteko ezer ikusi; oso toki pobreak daude han, baita toki turistikoetan ere. Dena dela, pobreak dira, baina konforme bizi dira daukatenarekin. Gero, Karibe aldean ere egon ginen; toki politak daude han; Puerto Viejo bost egun pasatu genituen.

Tortuguero ere egon ginen, baina ez genuen lortu dortokak arrautzak jartzen ikusterik. Hango hotel baten egon ginen, eta tximinoen sekulako zaratak entzuten genituen gauez. Harritzekoa da zenbat animalia dauden hango oihanetan.



“Ikusgarriak dira Rincón de la Vieja inguruko oihanak”

“Oso errepede txarrak daude Costa Rica osoan zehar”

AINTZANE IRIZAR



Tortuguero herrixka.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

MENDIA

Xabier Lijó mendizaleak korrika egin zuen Hiru Handiak ehun kilometroko proba

Berrogeita bost lagun ahalegindu ziren proba korrika egiten, eta Xabier Lijók 13 ordu eta 30 minutu behar izan zituen

EDU MENDIBIL

Xabier Lijók 13 ordu eta 30 minutuan bukatu zuen zapatuan Hiru Handiak izeneko proba. Zaldudonon hasi eta Aizkorri (1.528 metro), Anboto (1.331 m) eta Gorbeia (1.481 m) igo behar izan zituzten partaideek. Korrikako proban 45 lagun izan ziren irteeran.

Gasteizko Manuel Iradier elkar-teak antolatutako proban 800 partaide inguru izan ziren. Horieta-tik, 45 lagun ausartu ziren ibilbidea korrika egiten. Zapatuan, goizeko ordu bietan abiatu ziren Zaldudonotik. Ibilbidea hiru etapatan banatuta zegoen: Zaldudon-Aizkorri-Gatzaga (36,6 Km), Gatzaga-Anboto-Otxandio (32,4 Km), eta, azkenik, Otxandio-Gorbeia-Otxandio (31 Km). Helmugan 7.a izan zen Lijó (3.a senior mailakoen arten).

Mendizale amorratua, Lijók ondo baino hobeto ezagutzen du ibilbidea. Askotan ibilitakoa da inguru horretan eta duela zazpi urte egin zuen lehenbizikoz proba hori, oinez. Duela urte bi korrika egiten ahalegindu zen, baina erretiratu egin zen beroaren erruz, 35-40º graduko tenperatura jasan zuten-eta.

Lehenbizikotik etapa gauze egin zuten zapatuan. Lijóren hitze-



Xabier Lijó Otxandion, bigarren etaparen amaieran. Oraindik 31 kilometro geratzen zitzaizkion.

tan, "gauze izatean, eta ibilbidea argiekin ondo markatuta zegoen arren, kontu handiz ibili nintzen, ez jausteko. Indarrak ere gorde nahi nituen hurrengo bi etapetarako. Anboto igotzen bero

handia izan genuen, 25-30 gradu bitartean, eta azken etapa ere gogorra egin zitzaidan, ordurako hanketan kilometro asko nituelako". Ibilbide gehiena korrika egin zuen: "Igoeretako

aldapa gogorrenak kenduta, zati handiena korrika egin nuen, 70 kilometro inguru". Hiru Handietatik Anboto da gehien gusatzen zaiona: "Harri asko dago eta igoera oso teknikoa da. Ezber-

dina da, eta betidanik izan dut gustuko Anboto".

Proban zehar hiruzpalau kilo galdu ei zituen: "Hamar bat litro likido hartu nuen, eta, nagusiki, barratxo energetikoak jan nituen. Lagunen laguntza izan nuen eta bi aldiz geratu nintzen, pasta jateko eta atseden hartzeko".

BERE BURUARI EGINDAKO ERRONKA

Hanketatik baino gehiago, burutik gehiago sufritu zuela diosku: "Asko erregulatu beharra dago eta ordu asko dira bakarrik. Zergatik sartu naiz hemen?" galdetzen nion nire buruari behin baino gehiagotan. Hala ere, ondo kontzentratuta nengoen, eta zortea ere izan nuen minik ez izatean". Bere buruari egindako erronka bategatik proba egiteko gogoa zeukan eta helmugan ama zena-rekin akordatu zela dio, "duela bi urte proba amaitu ez izanaren arantza neukalako".

Urtarrila ezker ibili da Hiru Handiak gertatzen eta, bereziki, azken bost asteetan, gogor entrenatu da, astean bost bat bider 20 kilometro eginez. Pisu ariketak ere egin ditu. Orain, atseden hartzeko asmoa dauka eta datorren urtean Aizkorriko maratoian parte hartzea gustatuko litzaioke: "Mendiko probetan errepideko lasterketetan baino gehiago disfrutatzen dut".

Muguruza-Gutiérrez bikotea Urretxun irabazle

E.M.

Ander Muguruzak eta Igor Gutiérrezek osatutako bikoteak Urretxuko Pilota Txapelketa irabazi zuen aurreko zapatuan, Muguruza soraluzetarrari eta Ogaran donostiarrari 22-17 irabazita.

Bikote bergararrak ez zuen partidu erraza izan zapatuan. Markagailuan atzetik joan ziren hainbat aldiz, baina 16-17koaren ondoren, sei tanto egin zituzten jarraian eta txapela eskuratu zuten. Partidua ikusgarria ez izan ez arren, Anderrek eta Igorrek sasoi onean daudela erakutsi zuten berriro ere.

Beharbada, bezperako nekea ere nabaritutako zuten bergararrak. Usurbilgo txapelketako finalerdietan, Anderrek eta Igorrek 13-22 galdu zuten Huizi-Mintegi bikotearen aurka. Enrike Huizik Igor Gutiérrezekin batera irabazi zuen Bergara Hiriko finala joan den martitzenean, hilaren 18an.

Orain, Getariako, Errenterriako eta Antiguoko txapelketetan jokatu dute Muguruzak eta Gutiérrezek. Iaz, Getarian, Erroizenean-Argote bikotearen aurka galdu zuten finala. Datorren zapatuan, uztailean 6an, izango dute lehen partidua Getarian. Errenterriako eta Antiguoko txapelketak jokatzeko ere gonbidatu dute bikote bergararra.

UDABERRIKO TXAPELKETA

Zapatu eguerdian, Udaberriko Txapelketako finalak jokatu ziren Udal Pilotalekuan. Honako bikote hauek izan dira aurtengo txapelkunak: benjaminetan, Jokin eta Beñat Etxabe anaiak; alebinetan, Julen Eguren eta Beñat Rezusta izan ziren txapeldun; infantil B mailan, Aritz Rezusta eta Unai Orgaz; infantil A mailako txapelketa Ibon Berraondok eta Xabier Urrutiak irabazi zuten; kadete B mailan, Jokin Oregi eta Antxon Hernández izan ziren irabazleak; eta, azkenik, Mikel Salegi eta Jon Larrañaga nagusitu ziren kadete A mailakoan. Salegik Urdin Alberdi ordezkatu zuen zapatuko finalean.



Ander Muguruza eta Igor Gutiérrez.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com


KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

Ariznoak Igartua, Fernández eta Narváez gimnastak omendu zituen

E.M.

Aurtengo ikasturtearen amaierarekin bat eginez, Ariznoa gimnasia erritmiko taldeak azken urteotan Ipurua taldean jardun duten Jaione Igartua, Ane Miren Fernández eta Aintzane Narváez omendu zituen egubakoitzean Labegarietako kiroldegian.



Igartua, Fernández eta Narváez Ariznoako hiru gimnasta gaztetxorekin.

Zalantza barik, Ariznoa taldeak eman dituen gimnasta bikainetakoak izan dira Jaione Igartua, Ane Miren Fernández eta Aintzane Narváez. Orain, agur esateko ordua heldu zaie, eta egubakoitzean, ondo merezitako omendaldia egin zieten Labegarietako kiroldegian. Horren aurretik, Ariznoan diharduten gimnastek erakustaldia egin zuten. Hainbat kategoriatako 50 neska inguruk hartu zuten parte erakustaldian. Sonia Corredera entrenatzaile eibartarraren aginduetara dauden neskek eskola arteko txapelketatan jardun dute amaitu berri den denboraldian.

PALMARES BIKAINA

Esan bezala, Igartuak, Ane Mirenek eta Aintzane gimnasia utzi berri dute, ikasketengatik, nagusiki. Ariznoa taldean eman zituz-

ten lehen urratsak eta azken denboraldiotan Eibarko Ipurua taldearekin lehiatu dira Euskal Herriko zein Estatu mailako txapelketetan. Hirurek ere palmares bikaina daukate, baina adinak ere ez du barkatzen horrelako kirol gogor baten kasuan. 17 eta 18 urterekin goi mailako gimnasia egiteari utziko diote. Jabi Arteaga Ariznoa taldeko ordezkarieren esanetan, "hirurek ere esperientzia zabala daukate gimnasia, eta interesgarria izango litzateke

guretako entrenatzaile lanetan hasiko balira. Dena dela, eurekin aztertu beharreko kontua da hori".

Egubakoitzean, lore sorta eta garaikur bana jaso zuten omen-dutakoek, Ariznoako neskatilen eta Xabier Zabaleta Kirol zinegotziaren eskutik. Labegarietan batutako ikusleek txalo zaparrada luzea eskaini zieten hirurei. Txiki-txikitatik gogor entrenatu ondoren, esfortzu horren ordaina jaso zuten.

IPINTZAKO FUTBOL TXAPELKETA

PARTIDUAK

EGUBAKOITZA 28

NESKAK, alebinak
18:00: Finala

NESKAK, kadeteak
19:00: Arloteak-Elgeta
20:00: Mariaren Lagundia-Soraluze

NESKAK, seniorrak
20:00: Potzu Ta Zapaburuak-Ou Pitxu Ou
21:00: Pentol's Team-Arloteak
21:00: Arrano-Plaut

ASTELEHENA 1

FUTBOL 11
19:15: Altos Pornos-Descontrol Oil
20:30: The Parpol-Tojhu

MARTITZENA 2

FUTBOL 11
19:15: Torrekua-Timofonica
20:30: Osintxu-The Killer's

EGUAZTENA 3

FUTBOL 11
19:15: Mongitxarrak-Matxakategi
20:30: Getokuak-Bildurbarek Opel Lam

EGUENA 4

FUTBOL 7, beteranoak
19:30: Bar Canalejas-Guipuzcoana
19:30: Ezinleike-Bildurbarek Opel Lam
20:30: A Ze Flaxa-Arloteak


EGUBAKOITZA 5

NESKAK, seniorrak
19:30: Finalerdia
20:30: Finalerdia

SASKIBALOA

Infantil mailako 3x3 Saskibaloia Txapelketa jokatu da uztailaren 20an kiroldegian

Bergara Kirol Elkarteko Saskibaloia Sailak antolatuta, 1987tik 1990era bitartean jaiotako neska-mutikoei zuzendutako Saskibaloia Txapelketa jokatu da uztailaren 20an Labegarietako kiroldegian, 11:00etatik aurrera. Taldeek hiru jokalariz osatuta egon beharko dute, eta talde mistoak egiteko aukera egongo da. Parte hartzen duten jokalariek guztiek kamiseta bana oparituiko diete. Izenematea uztailaren 3ra arte egongo da zabalik eta partaideek inskripzio orria Bergara KEko postontzian (Bidekurutzeta 3) utzi beharko dute. Argibideak, 636 15 84 54 (Iker Barbero) telefonoan.



Bergarako Shotokan Karate-Dok ZORIONIK BEROENAK

eman nahi dizkie bere ikasle guztiei aurtengo emaitza bikainengatik. Irailean ikusiko dugu berriz ere elkar!

SHOTOKAN KARATE-DO

Shotokan txapeldunen eskola!



ELKARRIZKETA

EDURNE AZUARA/AKTOREA

“Jokalariai sariketan hiru izendatuen artean egoteak erabat harritu ninduen”

MONIKA BELASTEGI

Hasiberriak teleailean egin zitzaigun ezagun Edurne Azuara bergararra. Edurneren lanaren fruitu, joan den astean, telebistako emakumezko aktore onenaren izendatua egon zen *Jokalariai* sariketan.

Pozik egongo zara *Jokalariai* sariketarako izendatua izanagatik.

Pozik bai, baina, batez ere, harrituta nago. Lagun batek hots egin zidan izendatua nengoela esateko. Eta harrituta, batez ere, urte bat besterik ez daramadala lanean eta nik baino esperientzia handiagoa duen aktore asko dagoelako. Baina bai, hiru izendatuen artean egoteak asko poztu nau. Gainera, kontuan izanda hiru izendatuen izenak guk geuk, aktoreok, bozkatzan ditugula... Agian horixe da, baita ere, harritu ninduen, hasiberria izanik Euskal Herriko gainerako aktoreek niri botoa ematea.

Pentsatzen dut izendapena onuragarria izango dela etorkizunari begira.

Hori, hobe hilabete barru edo erantzungo banizu. Oraingo, pentsatzen dut nire izena ezagunago egiteko balioko duela: *Edurne Azuara nor da?* A, bai, *Jokalariai* sariketan izendatua izan zena. Aurrerantzean, agian, horretarako balio izango du, jendeari nire izena hain arrotza ez egiteko, behintzat.

Bestalde, niri neuri balio izan dit pentsatzeko gauzak ez ditudala horren gaizki egin. Autoestimua pixka bat piztu egiten du horrelako gauza batek, kontuan izanda, lehen esan bezala, lanbide bereko jendea dela, aktoreak direla bozkatzan dutenak.

Hasiberriak teleailean jardun duzu. Otsailean utzi zioten emititzeari. Ikusiko ditugu kapitulu gehiago?



MONIKA BELASTEGI

“Izendapenak balio izan dit pentsatzeko orain arte gauzak ez ditudala horren gaizki egin”

Urtarrilean amaitu genuen grabatzen, eta otsailean bukatu zen emisioa. Dena dela, esan digute, seguruenik, abuztuan kapitulu gehiago grabatzen hasiko gara berrito ere.

“Abuztuan, ‘Hasiberriak’ teleaileko kapitulu gehiago grabatuko ditugu, seguruenik”

Ez da ehuneko ehun ziurra, baina bueno, azkeneko baietza besterik ez dela falta esan digute. Hori horrela baldin bada, eta gauzak ondo badoaz, abuztu amaieran hasiko gara grabatzen,

“Oraingo, ez dut pentsatu Euskal Herriatik kanpora joatea lanera. Oso gustura nago”

eta irailan hasiko dira telebistan ematen.

Bien bitartean jardun duzu beste lanen baten? Euskal Herriatik kanporako proiekturen baten, akaso?

Ez, ez dut ezer berririk egin. Bestalde, oraingo, ez dut Euskal Herriatik irteteko asmorik. *Hasiberriak* teleailean oso gustura jardun dut, eta pozik egingo nuke denboraldi berria, bertan nire lana gehiago biribiltzeko. Dena dela, ez dut esaten hemendik kanpora joango ez nintzatekeenik, baina oraingo, behintzat, ez. Lagunak, familia... guztia daukat hemen.

Hasiberriak-en Lorena zinen. Hartu du Edurnek Lorenarengandik ezer ala, aldiz, Edurnek eraldatu du Lorena?

Edurnek aldatu du Lorena pertsonaia, bai eta gidoiak berak ere. Telesaila hasi genuenean, Lorena-ren eskema bat eginda zegoen, nahiko neska txolina izan behar zuen. Edozelan ere, gidoia bera Lorena-ren izaera aldatuz joan zen, transformatu egin zuen. Edurneren antz handiagoa hartuz joan zen; hasierako eskema hura aldatu egin zen.

Jendeak ezagutuko zaitu kalean; Lorena, behintzat, ezagutuko dute.

Gaztetxoek bai. Orain, ez horrenbeste, emisioa ere otsailean eten zutelako, baina lehenago bai. *Galder* non utzi nuen eta galdetzen zidaten. Eta ez horren gaztetxoek ere esaten zidaten zer bait, noiz edo noiz, kalean ikusten nindutenean: gaiztoa nintzela, eta horrelakoak. Eta batzuetan, gainera, nik ere, konturatu barik, azalpenak ematen nituen hura telebistako pertsonaia zela azaltzeko. Kurioso egiten zitzaidan gutxi batzuek errealtatea eta fikzioa ez bereiztea.

Gaur egun telebistan dauden saioetatik, zeinetan jardungo zenuke gustura?

Siete vidas teleailean, esate baterako. Oso ondo dago; gainera, ikusleak bertan daude, eta nahiz eta zuzenean ez izan, badu adrenalina puntu bat. Bestalde, gidoia ere oso ona iruditzen zait, eta aktoreak ere bai.

Arotz lanetan behar duzun guztia

AZKARATE
AROSZTEGIATelleria, 19 B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19.
ARETXABALETA Tel.: 943 77 01 24

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA

izeder

ARTE DEKORATIBOKO
ikastaroak943 76 71 05.
Arruriaga 2. BERGARA

Deskontua

%

30

CRISTINA
Arruriaga z/g BERGARA
943 76 03 04

E, TXO!

GUREGAIK/ UDAKO IKASTAROAK

Udan ere ikastaro ugari dago aukeran

AINTZANE IRIZAR

UNED, UEU, EHU... Izan ere, aukera zabala dago aurtengo udan ere ikastaroak egiteko. Ikastaroak antolatzen dituzten erakunde eta taldeak asko dira, baita eskaintzen dituzten ikastaro motak ere.

Bergaran bertan UNEDek hainbat ikastaro antolatu ditu. Oraingo astean bertan hasi dituzte ikastarook eta datorren astean amaituko dituzte. Ikastaro horietan parte hartzeko aukerarik ez dago dagoeneko, baina, esan bezala, eskaintza zabala da.

UEUko ikastaroetarako izena emateko aukera badago oraindik. Miarritzekoak uztailaren

1ean hasiko dira. Honako telefonora deitu behar da izena emateko: 943 82 14 26. Iruñeako ikastaroetarako, berriz, datorren aste osoan dago izena emateko aukera, besteak beste, Eibarko UEUren egoitzan eta Gasteizko Arriaga megadendan.

UEUren web orrialdean ikastaroen informazio zabala aurkitu dezakezue; www.ueu.org.

UDALAREN LAGUNTZA

Bergarako Udalak hainbat laguntza emango ditu UEUn parte hartzeagatik. Irailaren 15a baino lehen egin behar dira eskaerak; matrikularen ordainagiria eta ikastaroan parte hartu izanaren UEUren ziurtagiria aurkeztu behar dira horretarako.



Ikastaro eskaintza zabala dago aurtengo udarako ere.

ARTXIBOA

GAZTE INFORMAZIO GUNEKO ORDUTEGI BERRIA

Udan ordutegi berria izango du Bergarako Gazte Informazio Gunea. Uztailean, eguen eta egubakoitzetan egongo da zabalik. Eguenetan, honako ordutegiarekin: 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Egubakoitzetan 09:00etatik 13:00etara egongo da zabalik. Zapatuetan, berriz, itxita egongo da.

HAINBAT KONTZERTU GAZTETXEAN

Gaur, egubakoitza, bi talderen emanaldia izango dugu gaztetzean, 22:30etik aurrera. Folkore eta Anastua Band taldeena, hain zuzen ere. Bi eurotan salduko dituzte sarrerak. Abiadura Handiko Trena Gelditu! Elkarlana taldeak antolatutako kontzertua izango da gaurko hori.

Bihar, zapatua, 22:30ean, beste bi talderen kontzertua izango dugu: Zaragozako Velocidad Ansurda eta Galdakaoko Forensick taldeekin, hain justu.

CAMPUSAK ZABALIK ASTEBURUETAN

Arabako, Bizkaikok eta Gipuzkoako campusak zabalik egongo dira asteburuetan, ikasleek ikasteko tokia izan dezaten. EHUko txartela erakutsi beharko dute ikasleek. Azterketak amaitu arte egongo dira zabalik campusak.

ELGOIBARKO JAIETARAKO AZALAREN LEHIAKETA

Jaietarako programaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak. 18 urtetik gorakoei zuzenduta dago lehiaketa, eta uztailaren 4an, eguenean, amaituko da lanak aurkezteko epea.

LOTSABARIK/ Eneritz Madariaga

“Aurrerago, atzerrira joan nahiko nuke”

AINTZANE IRIZAR

Oraindik badauka hobeto pentsatzeko denbora, baina nahiko argi dauka Informatika edo Ingeniaritza ikasketak egin nahi dituela. Oraingoz, oporrez gozatzeko garai da Eneritzendako.

• Txikitán, zer izan nahi zenuen?

Arkitekto; betidanik gustatu izan zait marraztea eta horregatik nahi nuen arkitekto izatea.

• Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua?

Informatikari edo ingeniari lanetan eta neure kontura bizi izaten, gurasoen etxetik kanpora.

Atzerrira ere joan nahiko nuke, zer edo zer ezberdina ezagutzearen eta giroa aldatzearen.

• Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriro?

Ikasteko, etorkizunean ondo etorriko zaidalako ikastea; ondo portatzeko ere askotan errepikatzen didate.

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Ez daukat horrelakorik; konformatzen naiz ematen dizkidaten aukerekin.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Lagunekin ondo konpontzeari eta osasunari.

• Zure bertute bat?

Alaia naizela eta lagunak egi-

tèko erraztasuna daukadala, irekia naiz-eta.

• Eta hutsune bat?

Burugogorra naiz; nirearekin irtetea gustatzen zait.

• Zerk amorratzen zaitu?

Gezurrek.

• Zure gorputzeko atal gustukoena?

Begiak.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Fisikoari, aurpegiari, orokorrean; baina izaerari garrantzi handiagoa ematen diot.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Ezer ere ez.

• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Ez daukat fantasiarik.



ADINA: 15 urte • IKASKETAK: DBHko 3. maila • ZALETASUNAK: Abestea eta biolina jotzea

LIBURU BAT: 'Los escarabajos vuelan al atardecer', Maria Gripe-rena • FILM BAT: 'Ocean's eleven' • MUSIKA TALDEA: Ken 7 • KIROL TALDEA: Reala

TIRABIRAKA/ Peru Azkarate

Lan-elkarrizketa batean...



ZAHARREN ETXETIK



San Joxepeko jangelako zerbitzariak, menuak prestatzerakoan, barietatea eskaintzen ahalegintzen dira astean barrena.

Hogeita bost bat lagun batzen dira egunero San Joxepen bazkaltzeko

EDU MENDIBIL

Orain dela zazpi urte hasi ziren San Joxepe erretiratuen egoitzako jangelan eguneko menua eskaintzen. Gaur egun, hogeita bost lagun inguru biltzen dira egunero, eguerdi partean, elkarrekin bazkaltzeko.

Nagusiki, bakarrik bizi ziren erretiratuei zuzenduta, duela zazpi urte, eguneko menua eskaintzea erabaki zuten San Joxepeko jangelako arduradunek. Hasieratik harrera ona izan zuen zerbitzuak eta gaur egun, hogeita bost lagun inguruk elkarrekin bazkaltzen dute egunero. 15 bat erretiratu joaten dira, eta, horrez gain, Eguneko Zentroan ari direnek ere jangelan bazkaltzen dute. Ordu batak aldean hasten dira jangelako zerbitzariak eguneko menua mahairik mahai zerbitzatzen. Goiko argazkia atera genuen egunean honakoa zen menua: babarrun gorriak, oilasko-bularkiak entsaladarekin eta, postrerako, fruta. Prezioa merkea

da hainbat jatetxetakoarekin alderatuz gero: San Joxepen bazkaltzen dutenek 4,10 euro ordaintzen dituzte eguneko menuagatik.

San Joxepeko jangelan Rosa Mari Aranbarri, Pilar Aranguren, Mari Jose Imaz eta Maria Angeles Ziarsolo ari dira lanean. Pilar Arangurenek zera adierazi digu:

Lagun artean bazkaltzen

San Joxepen bazkaltzen duten gehienak bakarrik bizi dira, eta eguerdi partean, lagunekin batzen dira mahai baten bueltan. Denboraren poderioz hutsuneak ere nabari dira; Pilar Arangurenen hitzetan, "lehen, Reyes Korkostegi zena etortzen zen bazkaltzera, eta orain, igartzen da haren falta. Reyesek beti izaten zuen konturen bat giroa alaitzeko".

"Hona bazkaltzera etortzen diren gehienak bakarrik bizi dira, nahiz eta senar-emazteak ere etortzen diren. Menuak egunetik egunera aldatzen ditugu eta astean barrena barietatea eskaintzen ahalegintzen gara. Eta badirudi jendea gustura dagoela, urtetan etorri izan direnak ere badirelako tartean".

BERE BURUARI EGINDAKO ERRONKA

Florentino Murgiondo, esate baterako, hasierako bezeroetako bat dugu: "Lehen, emaztearekin etortzen nintzen, eta hura ez dagoenetik, bakarrik etortzen naiz. Norabait joan behar... Eta hementxe gustura bazkaltzen dut. Dagoeneko koadrilatxoa osatzen dugu hemen bazkaltzen dugunok". Esteban Fernández de Arroiabek ere San Joxepen bazkaltzen du jangela ireki zutenetik. Beti umoretsu, guztiei zerbait esateko dauka, ordu batak aldean denak jangelako mahaietan esertzen direnean. Familia moduko bat osatzen dutela esan genezake, eta beti izaten dute eztabaidarako gairen bat mahai gainean.



Zarautzera eta Zumaiara irteera

Urteko mendi irteeren egitarauarekin jarraituz, San Joxepe elkarteko kideek Zarautzera eta Zumaiara irteera egingo dute eguaztenean, uztailaren 3an. Irteera 09:00etan izango da autobus geltokitik. Zarautzera iritsi eta ibilbidea honakoa izango da: Santa Barbara, Garate mendatea eta Zumaia (argazkian). Bazkaria Zumaiako Lubaki jatetxean izango da, Zumaiako kiroldegian, hain zuzen. Itzulera, berriz, 19:30ak aldera egingo dute. Irteeraren prezioa 14 euro izango da, bazkaria barne. Interesatuak San Joxepen eman dezakete izena.

ZAHARREN TXOKOTIK

Natalio Juaristi

ERRETIRATUA


Natalioren lagunaren esanetan, txikiteoan kantuan ibiltzen den bakarrenetakoa da egun. Idazteko zaletasuna ere badauka. San Andres Egunean 90 urte egingo ditu.

Udaleko Literatur Lehiaketan saritu zaituzte azken urteotan.

Baserriko morroiei gertatutakoak kontatzen ditut askotan. Antzinako gauzekin akordatzeko erraztasuna daukat eta, ostera, eguerdian egindakoa ez dut gogoratzen batzuetan. Gaiak berez etortzen zaizkit, sarritan, ohean nagoela. Hori bai, euskarazko gramatika libururik ez dut sekula izan. Amak erakutsitako euskararen mintzatzen naiz.

San Joxepeko Abesbatzan ere bazabiltza.

Bai. Gaur (astelehena) ere



oinez joan naiz San Juanera, goardasola zabalik, mezan kantuan egitera.

Gaztetan, aktore lanetan ibilitakoa zara.

Batzokiko taldearekin. Aitona zaharrarena egiten nuen beti. Bergaran eta inguruko herrietan euskarazko lanak antzetzten genituen.

JOXAN ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29



EGUREN
INTURAK

Pintatze lanak orokorrean

Irala kalea z/g
Tel. eta faxa: 943 76 33 01




Matxiategi Elektragintza S.L.

ELEKTRIZITATE MATERIALEN
SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behea. BERGARA. 943 76 19 94.

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Bergarako zein bi plazatan daude farola hauek?

GALDEDEBALDE

1. Zeintzuk dira azken urteotan San Martzialgo erromerian aritu diren bertsolariak?
A/ Narbaiza eta Egileor.
B/ Muguruza eta Gutiérrez.
C/ Beitia eta Satorretxe.
2. Aizkorri, Anboto eta Gorbeia mendietatik, zein da altuena?
A/ Gorbeia.
B/ Anboto.
C/ Aizkorri.
3. Ze izen du Edurne Azuara aktore bergararrak Hasiberriak teleailean?
A/ Ainhoa.
B/ Lorena.
C/ Alizia.

BERGARAKO ZUHAITZAK

Hortentsiak

Hydrangea sp.

MAITANE ARIZABALETA

Jatorriz japoniarra izan arren, Europan XVIII. mendea ezker oso hedatuta dagoen zuhaixka da. Zuhaixka biribildua da, 2,5 metroko arramekin osatua. Hostoak eliptikoak eta punta zerradunak.

Lurraren pH mailaren arabera, landare berak kolore ezberdinetako loreak eskain dezake. Lurraren pH azidoa bada, loreak urdinak izango dira; alkalinoa edo neutroa bada, ordea, arrosak (betiere laborategiko nahasketak kontuan hartzeke). Lur arina, aberatsa eta hezea dute gogoko.

Bakarrik nahiz taldeka landa daitezke; esate baterako, tamaina luzedun zuhaitzen azpian, etxe edo pareta baten ondoan edo paseo baten ertzean. Ekaina eta abuztua bitartean loratzen da, eta lore txikiez osatutako korinboak ematen ditu. Ez da neguan inauten, baizik eta loreak eman ondoren. Hurrengo urtean hortentsiak lore gehiago ematea nahi badugu, kontuan hartu behar da, inauteko orduan, aurreko aldian lorea eman duten arrametan lorearen azpian 3-4 kimu bakarrik kendu behar ditugula; inoiz ez dira arrama guztiak ernatu behar.

“Jatorri japoniarra du hortentsiak, eta XVIII. mendea ezker oso hedatuta dago Europan”



ARTIBOIA



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JOSU IÑARRArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Josu! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Laureaga torrean / Galde debalde: 1-C, 2-B, 3-A.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Claro Miao atuna

80 gramoko hiru lata

1,05 €

175 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



SP Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA

Pintura-lanak orokorrean
•
Pintura industrialak
•
Zoru arinak: sintasolak, moketak...

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura



Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARaren bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.

Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAn agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



BERGARA
Iker Gil
Uztailaren 2an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Asier Muñoz
Uztailaren 1ean 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Julen Sanchez
Ekainaren 28an 7 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Olaia.



BERGARA
Lorea Vicente
Ekainaren 30ean 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Jokin.



BERGARA
Marta Molina
Ekainaren 30ean 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Maialen Leturia
Uztailaren 2an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Sara Manzano
Ekainaren 28an 8 urte.
Urte askotarako!
Familia.



BERGARA
Lucia Robla
Ekainaren 28an urtebete.
Urte askotarako Nini!
Etxekoak.



BERGARA
Nerea Larrañaga
Ekainaren 16an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Nerea Olabarria
Ekainaren 27an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Gorka Mujika
Ekainaren 30ean 26 urte.
Zorionak eta ondo pasau!
Etxekoak eta Naiara.



BERGARA
Mikel Moñux
Ekainaren 26an urtebete.
Urte askotarako!
Leire eta gurasoak.



BERGARA
Haizea Alberdi
Uztailaren 3an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Lierni Azpeitia
Ekainaren 28an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Josu Zalakain
Uztailaren 2an 5 urte.
Urte askotarako!
Olaia.



BERGARA
Miriam Moñux
Uztailaren 2an 2 urte.
Zorionak! Aitatxo,
amatxo eta Andoni.


Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33

Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara

Elgeta: Erosle-Baltxongua



**JAUJA
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta
era guztietako kargak

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tf. 943 76 56 62

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29



Ile apaindegira baino lehenago heltzen gara.
Ibarreko BERRIAK gertu-gertutik egunero.

BERRIAK

- Astelehenetik egubakoitzera
14:00etan eta 20:00etan
- Errepikapena egunero,
15:30ean eta 21:30ean

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitz / 2002ko ekainaren 28a / 119. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

AXUN MUXIKA/HERRI IKASTETXEKO IRAKASLEA

“Konstruktibismoa ez da hezkuntza metodo bat, filosofia bat baizik”

AINTZANE IRIZAR

UNEDEk antolatutako udako ikastaroetan ‘Konstruktibismoan oinarritutako saiakera baten azalpena’ ikastaroa eskainiko du Axunek datorren astean, Herri Ikastetxeko beste hiru irakaslerekin batera.


Hasteko, azal iezaguzu, labur-labur, zer den konstruktibismoa.

Horren oinarrian dagoena da sinestea gizakiak berak eraikitzen dituela bai bere ezaguera baita errealitatea ezagutzeko tresnak ere. Hori, helduei, umeei edo ikasleei aplikatu ahal zaie. Guk ulertzen dugu ikasleek hainbat gauza dakizkitela, ez direla ezagueraz bete behar ditugun ontzi hutsak; eurek badaukate euren pentsaera propioa, eurek eraikitakoa, ingurunean mugituz, interaktuatu. Hau da, umeak bere ingurunean dauzka material batzuk, espazio bat, pertsona batzuk..., eta hor mugituz, bere pentsamendua eta ezaguera eraikitzen doa. Beste era batera esanda, ezaguera barne prozesu bezala eraikitzen dela esan dezakegu.

Hori guztia, baina, zelan gauzatzen da?

Gertatzen dena da horrela pentsatzeak umearen aurrean beste jarrera bat izatera garamatzala, eta umearen beste ikuspegi bat ematen digu. Pentsamenduak, harremanak dauzkan pertsona bat ikusten dugu ume batengan. Ezagueraz aparte, beste aspektu batzuk ere ulertzen lagundu digu konstruktibismoak; ezaguera eraikitzen da, baina baita harremanak, mugimendua, eta abar ere.

Ume bat horrela ikusten baduzu, ikuspegi horretatik, entzuteko gaitasuna garatu behar duzu. Umeak esaten dizuna entzuteko prest egon behar duzu: esaten dizuna pentsaerari, motrizitateari eta sentimenduei dagokienez. Entzuten badiozu, umeak segurtasuna edukiko du ingurunearekin interaktuatzeko. Guztiok sentitzen gara hobeto ingurukoek



AINTZANE IRIZAR

entzuten badigute. Horrela, ongizatea daukagu, eta horixe da, hain zuzen ere, gure helburuetako bat, ongizatea.

Praktikako adibide batzuek, beharbada, hori guztia hobeto ulertzen lagunduko digute.

Ingurune hezitzailea sortzea da gure lana, umea den modukoa azal dadin markoak sortzea, hain zuzen ere. Haur Hezkuntzan, esate baterako, eskolaratze prozesu berezia daukagu. Eta horrela, bide ematen diogu umeari, hura izan dadin banaketa prozesuaren eragilea. Umearen ezaugarriak eta beharrak kontuan hartzen ditugu horretarako. Banaketa egiteko, lotura handia daukan pertsona batekin joaten da eskolara, horrek segurtasuna ematen diolako; horrelaxe irekiko da umea besteekin harremanak hasteko.

“Irakasleon lana da ingurune hezitzailea sortzea, umea den modukoa azal dadin”

Bestalde, ikasgaiak ez dituzue planteatzen aparteko ikasgai moduan, ezta?

Bai, ezaguera guztiak gaietatik sortzen dira; ikasleek eurek aukeratzen dituzte gaiak, eta gu gai horien antolaketan sartzen gara. Gaiak aztertzen ari garen neurrian, ezaguera guztiak sortzen dira. Adibidez, Antzuolako maketa egin behar badugu, maketa hori egiteko beharrezkoak izango dira neurriak, proportzioak, deskribapenak, historia, eta abar.

Ikastaroaren izenburuak esaten digu saiakera bat dela Antzuolako eskolarena.

Horrek esan nahi du konstruktibismoa, gure ikuspegitik, ez dela metodo bat. Esaten dugunean konstruktibismoak umeari ulertzen lagundu digula, horrek ez du esan nahi bide zehatzik markatzen digunik konstruktibismoak. Metodo bat baino gehiago, filosofia bat da konstruktibismoa. Umearen aurrean jarra bat edukitzea esaten duena; baina, hortik aurrera, norberak topatu behar ditu umeari ulertzeko eta harekin lan egiteko bide egokienak.

Zeini zuzenduta dago eskainiko duzun ikastaroa?

Entzutea nahi duen edonori. Dena dela, gure helburua irakasleengana heltzea da. Gure hausnarketak eta esperientziak irakasleei helarazi nahi dizkiegu.

LABUR

Pegatina Lehiaketa antolatu du Idolazek jaietarako

Lehiaketa horretan parte hartu nahi duenak uztailearen 4a baino lehen liburutegian aurkeztu beharko du esaldia, betiere, euskararen erabilera bultzatuko duena. Esaldi hori, gainera, kaleratzeko moduan diseinatuta aurkezten bada, hobeto; izan ere, diseinua ere baloratuko dute.

Udal Liburutegiak beste ordutegi bat izango du udan

Irailaren 20ra arte beste ordutegi bat izango du liburutegiak: 11:00etatik 14:00etara egongo da zabalik; abuztuan, berriz, itxita egongo da.

Bestalde, liburutegian dauden liburuen berri emateko, triptiko bat argitaratu eta etxetik banatuko dute liburutegiko arduradunek.

Laurogei antzuolarrek eskatu dute EHNA

Hilabete pasatu da Udala Euskal Herriko Naziotasun Aitorpena tramitatzen hasi zenetik. Lehendabiziko hilabetearen 80 herritarrek eskatu diote aitorpen hori tramitatzeari. Bai Euskal Herriari taldea, ekimen hori bultzatu zuena, pozik azaldu da herritarrek eman dako erantzunarekin.

Astelehenean, uztaileak 1, hasiko dira udalekuak

Uztailearen 1ean hasi eta 18an bukatuko dira udalekuak. Bi udaleku egongo dira: batetik, Udalak urtero antolatu izan dituenak; bost eta hamabi urte bitarteko umeei zuzendutakoak. 82 umeak eman dute izena udaleku horietan; bestetik, ingelesezko udalekuan arituko dira DBHko bigarren mailako 12 neska-mutil.

San Juan eta San Pedro jaiak ospatzeko, ekitaldiz betetako asteburua izan genuen

AINZANE IRIZAR

San Pedro eguna berez ekainaren 29an izan arren, aurreko astean ospatu zituzten jaiak Kalebarrean. Hainbat ekitaldi antolatu zituzten auzotarrek, gazte, ume eta helduendako.

Jaiak hasteko, egubakoitzean, nahiko dantza egiteko aukera egon zen Bidusound diskoteka mugikorrarekin.

Zapatu arratsaldean, pailazoak egon ziren Zurrategin. Iluntzean, ohiturari jarraituz, makala jaso zuten auzoko mutilek. Ez zien lan handirik eman, eta sasoko daudela erakutsi zuten.

Domekan ere hainbat ekitaldi egon zen, eta inprobisaziorako abildadea dutela garbi laga zuten antolatzaileek. Izan ere, Asto Lasterketa antolatu arren, ez zen lau hankako astorik agertu, eta segituan antolatu zituzten horren ordezkoko ekitaldiak. Jende mordo inguratu zen Kalebarrean Asto Lasterketa ikusteko gogoz, eta ezin, bada, ezer barik laga jendea. Gauzak horrela, ume eta ez hain umeendako jolasak antolatu zituzten: Zaku Lasterketa, Arrautza Lasterketa, Karaokea, Sagarraren Jolasa... Lau lagunendako afaria ere zozkatu zuten; 814 zenbakidun txartela duenak irabaziko du saria.

SAN JUANAK

Domekan, berriz, San Juan bezpera ospatu zuten bai Uzarragan baita herriko plazan ere. Goizean, meza izan zuten Uzarragan, eta mezaren ondoren, luntxa eta dantza saioa izan ziren.

Iluntzean, berriz, San Juanetako ohiturari jarraituz, makala jaso zuten herriko plazan, 20:00etatik aurrera. Behin makala ondo jarrita, Oinarin taldeko dantzarien saioa izan genuen makalaren inguruan.



Auzoko mutilek ez zuten lan handirik izan makala jasotzen.



Boladan dauden kantuak abesteko aukera izan zuten Karaokean gaztetxoek.



Auzoko jaiak izanik, umore onez zebilen jendea, baita gaztetxoak ere.



Asto Lasterketarik ez, baina bestelako jokoak ez ziren falta izan domekan.



Balkoi ederrenak saritu dituzte

San Juan bezperan, domekan, banatu zituzten Balkoi eta Lore Lehiaketako sariak. Bi sari banatu zituzten: alde zaharreko eta alde berriko onenei eman zizkieten sariak.

Alde zaharrekoari dago-kionez, herriko plazako lau bizilaguni eman diote saria, laurek berdin apaindu dituztelako balkoiak: Josefina Lete, Maribi Larrañaga eta Ana Mari eta Maria Jesus Mada-riaga izan dira irabazleak. Alde berriko balkoi ederrenaren saria, berriz, Marije Zubimendik jaso du./ A.I.

LABUR

San Martzial jaiak ospatuko dituzte asteburuan

Hainbat ekitaldi egongo da San Martzial eguna ospatzeko. Bihar, zapatua, 11:00etan, plater-jaurtiketa proba egingo dute; 18:00etan, umeendako jolasak egongo dira; gero, txokolate-jana eta trikitilariak; eta 21:00etan, herri afaria egingo dute. Domekan, berriz, 12:00etan, meza izango dute eta bizikleta igoera ere ordu horretan hasiko da; 13:00etan, dantzariak eta trikitilariak arituko dira; eta 16:00etan, erromeria izango dugu Joxe Gardokirekin.

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko ekainaren 28a / 104. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

Guraso Elkartekuak egin dabe aurtengo pregoia


OXEL EROSTARBE

Ferixa Nagusixak hasteko, pregoia egin dabe, eta Guraso Elkartekuak euki dabe aurtengo pregoia botatzeko arduria. Hori, atzo gabian izan zan. Domekara bittartian ekitaldi ugari izango dira. Aipatzekuak dira Markelineren DSO eta Iñigoren magia ikuskizunak.

Jai giruan murgilduta igaroko dogu aste bukaeria elgetarrok. Izan be, heldu dira herriko jai nagusixak, Ferixa Nagusixak.

Atzo, eguena, 11:30ean, umien pregoiarekin hasi ziran Ferixa Nagusixak. Urtero moduan, Elgetako Eskolako neska-mutiko nagusixenak izan ziran pregoieruak. Umiek zenbait jokorekin osatutako parkia izan zeben kiroldegixan eta edarto pasau zeben bertan.

Atsalde aldian be giro aparta egon zan herriko kalietan. Herriko kuadrilla gehixenak basarritar jantzita, beste batzuk moztortuta, hasiera bikaiña emon zotsen danek aurtengo jaixei. Jai batzordiak egindako deixari erantzunaz, herri afarixan be jentegari batu zan.



GOIBEKOKALE

laz bezela, aurtengo Asto Lasterketia izango da zapatu eguardixan.

ANTZERKIXAK ETA TANBORRADIO

Bihar, zapatua, Umien Tanborradio izango da 18:30etik aurrera. Domekan, berriz, Iñigoren

magia ikuskizuna egongo da iluntzian, eta Markelineren DSO antzezanakin bukatuko dira aurtengo Ferixa Nagusixak.



San Juan sua piztu zuten

Eguraldixak lagundu ez zeban arren, herritar ugari batu zan aurreko domekan herriko neska-mutikuek gertatutako San Juan suak ikustera. Egundian euri eta lanbro ugari egin zeban arren, neska-mutikuek gertatutako metiak segittuan hartu zeban su. Hillabete osuan batutako periodiko, traste zahar eta egurrak erretzen ziran bittartian, su txiki bat piztu zeben neska-mutikuek meta haundixaren onduan. Hantxe ibilli ziran saltoka, berandura arte, gaiñera. /O.E.

KIROLA

Erle ugari herriko hainbat lekutan

O.E.

Udarekin batera erleak ere etorri dira Elgetara. Hori esateko deitu dute, behintzat, GOIBEKOKALERA zenbait herritarrek.

Aurreko asteburuan, erle ugari dabilzan adibide garbia izan genuen. Kiroldegiko barandan erle ugari batu ziren eta erlezainari deitu behar izan zioten erleak handik eramateko. Ez zuen ez erlezainak lan makala

izan, eta sei bat ordu behar izan zituen barandatik erle guztiak kentzeko.

Zenbait etxetan ere arazo ugari izan ei dituzte erleekin. Etxe batzuetan pertsianako zirrikietatik sartu dira erleak eta nahiko lan izan dute erleak handik kentzeko.

Erretratuan ikus dezakegunez, lan handia izan zuen erlezainak. Badirudi aurrerantzean ere ez zaiola lanik falta izango.



JOSETXO ARANZABA

Erle guztiak kentzeko sei ordu inguru behar izan zituen erlezainak.

UDA KANPAINA

48 umek hartuko dute parte Uda Kanpainan

O.E.

Guztira, 48 neska-mutikok eman dute izena Kirol Zerbitzuek antolatutako Uda Kanpainan.

Eskainitako aukera zabala bazen ere, aisialdia, multikirola eta aerobik txikia bakarrik egingo dituzte. Nagusiendako aerobika ere izango da.

Etzi, domeka, ekingo dio Uda Kanpainak. Goizeko hamaiketan, udaletxeko plazan elkartuko dira aisialdian parte hartuko duten neska-mutikoak. Multiki-

rolean izena eman dutenak ere uztaillaren 1ean elkartuko dira, goizeko hamaiketan, baina kiroldegian batuko dira horiek.

ESKALADA IKASTAROA

Uda Kanpainaren barruan, Eskalada ikastaroa ere antolatu dute hamasei urtetik gorakoendako. Ikastaroan parte hartu nahi dutenek uztaillaren 11ra arte dute izena emateko.

Hortaz, aurtengoan ere, kirola egin nahi duenak aukera izango du udan barrena.

AIPAGARRIXA

Sei elgetar Hiru Handiak martxan

O.E.

Aurreko aste bukaeran, Hiru Handiak mendi martxia izan zan. Zaldondo eta Otxandio arteko 100 kilometroko ibilbidia egin zeben Jose Luis Egizabal, Jose Mari Arozena, Alberto Telleria, Enrike Gorrotxategi, Iñigo Irazabal eta Enrike Isasi elgetarrek.

Guztira. 826 mendizalek hartu zeben parte mendi martxan. Ibilbidian Gorbeia, Anboto eta Aizkorri igo bihar izan zittuen. Honen mendizalio artian sei Elgetar izan ziran. Gabe erdixan ekin zotsen ibilbiduari Zaldondon; 100 kilometro egin eta gero, elgetar danak heldu ziran Otxandio helmugara. Jose Luis Egizabal eta Jose Mari Arozena izan ziran helmugara heldu ziran lehenengo elgetarrak: 21 ordu eta 14 minutu bihar izan zittuen ibilbi-

dia egitteko. Alberto Telleriak 22 ordu eta miñutu 1 bihar izan zittuan, Enrike Gorrotxategik 22 ordu eta miñutu 2 eta Iñigo Irazabalek 22 ordu eta 32 miñutu.

ENRIKE ISASI KORREKETAN

Hiru Handiak mendi lasterketan, bestetik, Enrike Isasik hartu zeben parte. Martxako ibilbide bera izan arren, korrika egin zotsen aurre mendizaliek. Lasterketan 41 lagunek hartu zeben parte eta 18k bakarrik lortu zeben helmugara heltzia. Enrikek 15 ordu, 35 miñutu eta 56 segundubihar izan zittuan Otxandiora heltzeko. Marka bikaiña, hortaz.

Hiru Handiak egin eta gero, espero zeben moduko gogorra izan dala aipatu zoskuen sei mendizale elgetarrek. Ibilbidia gogorra izan arren, esperientzia polita izan ei da eta aurrerago be hemen martxan parte hartzeko asmua ei dauke.



Jose Mari Arozena, Enrike Gorrotxategi eta Jose Luis Egizabal Otxandion.

ARETO FUTBOLA

EMAITZAK

Txapela-Bar EL Arco	5-8
Spias-Vicios	3-2
Arineketan-Komando Piperrak	18-1
MTS- Chievo	Atzeratuta

SAILKAPENA

Taldea	P	J
1. Arineketan	13	8
2. Vicios	13	8
3. Txapela	10	8
4. Bar El Arco	10	8
5. Spias	8	8
6. Chievo	6	6
7. Komando Piperrak	6	8
8. MTS	2	7
9. La Kokotxa	0	7

FINALAURREKOAK

Vicios-Txapela
Izendatu barik.
Arineketan-Bar el Arco ala Chievo
Izendatu barik.

KIROLA

Domeka goizean jokatuko dituzte Lau t'erdiko finalak

O.E.

Amateur mailako txapelketa garrantzitsuenetakoa den Elgetako Lau t'erdiko Txapelketa amaitzeaz dago. Domekan, 11:45ean, jokatuko dituzte finalak eta ETBK zuzenean emango ditu.

Kadete mailan, Castillo eta Esnaola iritsi dira finalera. Bai iurretarrak baita beasaindarrak ere maila polita erakutsi dute txapelketan eta ez dago garbi zein izango den txapelduna.


Nagusietan, aldiz, Bengoetxea leitzarra da txapela lortzeko faboritoa. Altuna izango du aurkari. Berrobiko pilotariak sorpresa eman zuen finalaurrekoetan, iaz txapeldunorde izan zen Agestaren aurka garaipena lortuta. Altuna 22-16 nagusitu zen. Beste finalaurrekoan Bengoetxeak 22-15 irabazi zion Mendizabali. Pilotari

biek partidu bikaina egin zuten arren, leitzarrek duen maila erakutsi zuen. Txapelketan argi ikusi denez, Bengoetxea da aurtengo Lau t'erdiko Txapelketa irabazteko faboritoa; izan ere, gainerako pilotariak baino maila bat gorago dagoela erakutsi du.

FO FO FO, KALERA

Elgetako Fo Fo Fo taldeak ezin izan du Ipintzako Futbol Txapelketako lehenengo fasea gañditi. Azken partiduan, bigarren faseara heltzeko Mongatxurrak taldearen aurka berdinketa nahikoa zuten, baina 5-1 galdu zuten partidua Elgetako mutilek.

Areto futbolari dagokionez, jaiak direla eta ez dute asteburu honetan partidurik jokatu. Gauzak horrela, datorren astean, atzeratutako partiduak jokatu dituzte.



Altunak, argazkian eskuman, pronostikoak hautsi eta Agestari irabazi zion, eta finalerako txartela lortu zuen.

Ferixa Nagusia, San Pedroak eta San Martzialak XELEBERRIn

Elgetako, Eskoriatzako eta Bergarako jaiak GOITBn.

XELEBERRI

- Martitzena, uztailak 2, 20:30ean
- Errepiapena eguaztenean, uztailak 3, 14:15ean
- Errepiapena asteburuan, uztailak 6 eta 7, 14:00etan



ERRETRATUZAHARRA

Lagun taldea
San Martzialen

Urtero, San Martzial eguna dela-eta, inoiz baino herritar gehiago hurbiltzen zaigu erredakziora, San Martzialgo erromerian ateratako erretratuak argitaratzeko asmoz.

San Martzialgo egitarauak urtetan aldaketa gutxi izan badu ere, protagonistak aldatuz doaz denboraren poderioz. Horren lekuko, oraingo asteko hiru argazkiak dituzue.

Alboko erretratuak 1960. urte ingurukoa da. Ezkerretik eskumara, zutik: Jose Asenjo *Txaflan*, Iñaki Urrutia, Jabier Gantxegi, ezezaguna, Luis Larrañaga *Kikio*, Manolo Lijó *Riveira* eta Joseba Linazisoro.

Makurtuta: Juan Cruz San Emeterio, Jose Mari Igartua eta Luis Mari Garitano.

Argazkia: Iñaki Arrieta



Ozaetako lagunak, 1960

Ozaetako emakume koadrila bat, San Martzialen, 1960. urtean. Zelaian jarrita daudenak hauek dituzue, ezkerretik eskumara: Mariasun Azkargorta, Rosarito Ugarte, Begoña Irizar, Esther Arrondo, Maria Angeles Martín, Maria Jesus Untzuruntzaga, Pilar Agirreolea eta Matilde Arenaza.

Argazkia: Esther Arrondo



Familia artean, 1931

Bergarako familia bat, etxetik eramandako jana eta edaria alboan dituela. Ezkerretik hasita, Julian Laborda, Lorenza Astiazaran, ezezaguna, Pablo Zabaljauregi, Edurne Laborda (aurrerago), Casilda eta Santos Okina senar-emazteak, Migel Okina eta Marisabel Okina (aurreko aldeko neska-mutikoak).

Argazkia: Garbiñe Arrieta



Zumelaga

JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

SANTOS



Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tf. 943 76 26 10



Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45



Ikus eta egiazta itzazu Mapfreren prezioak!

	SIETE 7	LÍDER	TODO RIESGO 100
	POLIZA	POLIZA*	POLIZA
FORD FOCUS 1.8 TDCI GHIA (115 ZP)	427,01 €	746,97 €	902,50 €
AUDI A4 TDI AMBITION	465,97 €	1.097,10 €	1.435,90 €
OPEL CORSA 1.7 DI SRI	384,35 €	570,02 €	695,27 €
RENAULT KANGOO 1.5 DCI EXPRESSION	450,77 €	728,57 €	857,93 €
RENAULT SCENIC 1.9 DTI ALIZE	488,44 €	954,15 €	1.193,70 €
BMW 318 TI COMPACT	505,29 €	962,27 €	1.196,29 €
CITROEN XSARA PICASSO 1.6	433,68 €	780,19 €	952,58 €
CITROEN BERLINGO 1.4 MULTIVOLUMEN	414,59 €	617,32 €	757,08 €

ADIERAZITAKO KOPURUAK BEZERO HONI DAGOZKIO: 31 URTE BAINO GEHIAGOKO EMAKUMEA, 10 URTE BAINO GEHIAGOKO GIDABAIMENAREKIN ETA %35EKO BONUSAREKIN. BESTE BONUS BATZUEN BERRI IZATEKO, GALDE EGIGUZU.
*ARRISKU OROKO ASEGURUA FRANKIZIAREKIN.



Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.



 **Mirari**
JANTZIDENDA
Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

Likidazioa berritze lanengatik
%20 %30 %40

Auto batekin amesten duzu
edozein egoera menderatu ahal izateko?



Opel Vectra berria. Zuretzat egin dugu
Gidatze Interaktiboko Sistema (IDS) berriarekin.



Opel. Ideia berriak . Auto hobeak.

Giauto

Olabarrena z/g. Tel. 943 76 33 44/46. BERGARA
San Andres Auzoa 10D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE